



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## PRENTSARAKO DEIA

**Astelehena, urtarrilak 21 (9:30). Herri Lan eta Garraioetako Batzordea**

# Barakaldoko Lutxanako tuneletako segurtasunari buruz eztabaidatuko dau Herri Lan eta Garraioetako Batzordeak

*Bilbon, 2013ko urtarrilaren 18a*

Batzar Nagusietako Herri Lan eta Garraioetako Batzordea astelehenean, urtarrilaren 21ean, batuko da Barakaldoko Lutxanako tunelei buruz Socialistas Vasco Taldeak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamen bat (<http://www.jjggbizkaia.net/Boletin/B/4/09/Biv223a.pdf>) eztabaidatzeko. Horren bitartez, eskatu egin gura jako Foru Aldundiari desagertuerazo dagiala sozialisten ustez Barakaldoko emakumezkoen segurtasunerako “gune baltz” nagusi dan hori. Lutxanako oinezkoentzako tunelok orain 20 urte eregi ziran auzo hori eta Barakaldoko erdigunea lotzeko, eta albiste izan dira oraintsu, emakumezko batek eraso sexuala jasan ebalako han joandako urriaren 28an.

Talde sozialistak gura dau Aldundiak “aukera arina eta segurua emon deiela oinezkoei”, euren ustez “Barakaldoko herritarrek ordaindu egin behar dabez orain orduan txarto egindako planifikazioaren akatsak, azpiegitura basatiak egin ziralako, besteak beste A-8 autopistea, Rontegiko Zubia eta Gurutzetako Aldagunea”.

Bizkaiko Talde Popularrak zuzenketa-eske bat aurkeztu deutso ekimen horri (<http://www.jjggbizkaia.net/Boletin/B/4/09/Biv223b.pdf>), hain zuzen be Barakaldoko Udalari eskatzeko “jarri dagizala, gehiago atzeratu barik, bidezaintzarako kamerak Lutxanako tuneletan”.

## ERREPIDEETAKO BIDESARIEN ZENBATEKOAK GAURKOTZEA

Batzordearen batzar berean Bizkaiko errepideetan urtarrilaren 1etik hasita ordaintzen diran bidesarien zenbatekoen barri emongo deutse Aldundiak Batzar Nagusiei. Hiru Foru Dekretuen inguruko kontu emonketea da, eta horreetan Foru Aldundiak zehaztu egiten ditu zeintzuk diran Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea, Artxandako Tunelak eta AP-8aren Bizkaiko tartea erabilteagaitik ordaindu beharreko bidesariak, baita zenbateko horreek zelan kalkulatu dituan be.

(Foru Dekretuak)

[http://www.jjggbizkaia.net/Registro/Registro/PDF/30\\_13.pdf](http://www.jjggbizkaia.net/Registro/Registro/PDF/30_13.pdf)

[http://www.jjggbizkaia.net/Registro/Registro/PDF/31\\_13.pdf](http://www.jjggbizkaia.net/Registro/Registro/PDF/31_13.pdf)

[http://www.jjggbizkaia.net/Registro/Registro/PDF/32\\_13.pdf](http://www.jjggbizkaia.net/Registro/Registro/PDF/32_13.pdf)



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## CONVOCATORIA DE PRENSA

**Lunes, 21 de enero (9.30 horas). Comisión de Obras Públicas y Transporte**

### La Comisión de Obras Públicas y Transporte debatirá sobre la seguridad en los túneles peatonales de Lutxana (Barakaldo)

*Bilbao, a 18 de enero de 2013*

La Comisión de Obras Públicas y Transporte de las Juntas Generales se reunirá el lunes, 21 de enero, para debatir una Proposición No de Norma (<http://www.jjgbizkaia.net/Boletin/B/4/09/Biv223a.pdf>) del Grupo Socialistas Vascos a través de la cual se pide a la Diputación Foral que elimine lo que consideran el “principal punto negro” para las mujeres en Barakaldo. Los túneles peatonales de Lutxana, que conectan este barrio con el centro urbano de la localidad fabril desde hace dos décadas, son noticia desde que el pasado 28 de octubre una mujer sufriera una agresión sexual.

El grupo socialista persigue que la Diputación ofrezca una “alternativa rápida y segura a los peatones” ya que, en su opinión, los “baracaldeses y baracaldesas pagan en la actualidad los errores de aquella mala planificación, basada en la construcción de infraestructuras salvajes, como son la A-8, el Puente de Rontegi y el Intercambiador de Cruces”.

Por medio de una enmienda (<http://www.jjgbizkaia.net/Boletin/B/4/09/Biv223b.pdf>), el grupo Popular Vizcaíno en la cámara quiere que esta iniciativa sirva para instar también al Ayuntamiento de Barakaldo a que “sin más dilación”, instale cámaras de videovigilancia en los túneles.

#### ACTUALIZACIÓN DE LOS PRECIOS DE LAS CARRETERAS DE PEAJE

En la misma comisión, la Diputación Foral informará a las Juntas Generales de las nuevas tarifas que se aplican ya en las carreteras de peaje de Bizkaia, que son una realidad desde el 1 de enero. Como indica la normativa, el ejecutivo foral dará cuenta de los Decretos Forales por los que se actualizan los precios de uso de la Variante Sur Metropolitana, los túneles de Artxanda y la AP-8 (tramo vizcaíno), y en donde se detalla el criterio utilizado por el gobierno foral para decretar las nuevas cuantías.

(Decretos Forales)

[http://www.jjgbizkaia.net/Registro/Registro/PDF/30\\_13.pdf](http://www.jjgbizkaia.net/Registro/Registro/PDF/30_13.pdf)

[http://www.jjgbizkaia.net/Registro/Registro/PDF/31\\_13.pdf](http://www.jjgbizkaia.net/Registro/Registro/PDF/31_13.pdf)

[http://www.jjgbizkaia.net/Registro/Registro/PDF/32\\_13.pdf](http://www.jjgbizkaia.net/Registro/Registro/PDF/32_13.pdf)